


# ekonomia soziala eta SOLIDARIOA



 **pays  
Basque  
euskal  
HERRIA**

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE  
ELKARGOA

  @communautePB | communaute-paysbasque.fr

Ekonomia emankorra, iraunkorra eta orekatua sustatzeko xedez, Euskal Hirigune Elkargoak Garapen Ekonomikoko Eskema ausarta plantan ezarri du.

Azken honek garapen ekonomikoaren arloko ekintza publikoa erakusten du, betiko sail egituratzaileetan eta lurralde osoan garapen ahalmen handiko sailetan oinarriturik.

Historikoki lurraldean sustraitutako ekonomia soziala eta solidarioari eskainitako bide-orri honek ekiteko modu honen aldeko Euskal Elkargoko ekintza Ipar Euskal Herriko ekonomiaren bihotzean kokatzen du.

“

5

Retrouvez la Feuille de route  
de l'Économie Sociale  
et Solidaire en français  
en ligne sur

**communauté-paysbasque.fr**

*Ekonomia Sozial  
eta Solidarioaren bide  
orria aurki ezazu  
communauté-paysbasque.fr  
webgunean*



## ESS

Ekonomia Soziala eta Solidarioa. 2014ko uztailean 31ko legeak zehazturik (Hamon legea deitua), Ekonomia Soziala eta Solidarioa elkartasunean eta baliagarritasun sozialean oinarritutako barne ibilera eta jarduerak daramatzen eragile multzo bati dagokio (kooperatibak, mutualitateak, elkarteak, fundazioak, ESSko merkataritza konpainiak).

## FINANTZABIDE SOLIDARIOA

Finantzabide solidarioak, edo eragin sozialeko finantzabideak, ingurumenaren eta gizartearen arloan eragin baikorra duten proiektuen finantzabidea errazteko helburua duten ekimen eta araudi guziak estaltzen ditu.

## PROIEKTU EKARLEA

Enpresa baten sortzean, garatzean edo berriz hartzean sartzen den pertsona orori dagokio. Herri, eskualde edo nazio mailan laguntza pertsonalizatua eta finantza-egiturak ekartzen dizkioten erakundeek lagun dezakete

## HIRUGARREN-LEKUAK

Lana bizitza kolektiboko beste arloekin nahasten den lekuei dagozkie.

Elkar-aritze, topaketa eta partekatze guneak dira, elkarlanera eta proiektu kolektiboetara bultzatzen dutenak

## SCIC

Interes kolektiboko Kooperatiba Pribatua (SARL, SAS, SA...) eta interes publikokoa den SCICak pertsona fisikoak (langileak, bezeroak, hornitzaileak) edo moralak (enpresak, elkarteak, elkargoak...) proiektu baten inguruan biltzen ditu, zeinen helburua "baliagarritasun soziala duten interes kolektiboko ondasunak edo zerbitzuak ekoiztean edo hornitzean datzan".

## SCOP

Ekoizpenerako Kooperatiba. SCOP merkataritza, industria, eskulangintza edo zerbitzuaren arloko enpresa bat da, zeinen langileak gehiengoko bazkideak diren eta non boterea demokratikoki gauzatua den. Langile guziak ez badira bazkide, bazkide bilakatzeko xedatuak dira. Mozkinen banaketa zuzenaren sistemak animaturik, langileak inplikatuak dira

## BERRIKUNTZA SOZIALA

Ondoko ezaugarrietariko bat duten produktuak edo zerbitzuak eskaintzean datzan proiektua:

1. beteak ez diren edo gaizki beteak diren behar sozialei erantzutea
2. behar sozialei erantzutea enpresa forma berritzaile baten bidez, ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko prozesu berritzaile baten bidez edota lana antolatze bide berritzaile baten bidez



Gaur egun, Ekonomia Soziala eta Solidarioak –ESS– leku handia dauka Ipar Euskal Herrian, dinamika azkar batean aldi berean sustraitua eta engaiatua. Lurraldea ESSaren funtsa bera da, gizartearen eta ingurumenaren arloko trantsizioen zerbitzuko den garapen ekonomikoa bultzatzeko xedearekin. Euskal Hirigune Elkargoarentzat, ESSko ekimen ekonomikoak sustatzea funtsezkoa da, enplegu iraunkorrek eta lotura soziala sortzen dutelakoan eta lurraldearentzat bertutetsuak direlakoan.


2022-2026 ESS bide orri hau engaiamendu horren lekuko izaten da. 2021ean eragileen aldean eramandako hitzartze zabal baten emaitza da, zeinek ESSko estrategia ekonomikoaren definizioa ahalbidetu duen.

ESS ezagutarazteko eta sustatzeko, elkarlaneko edo eragin sozialeko ekonomia bezalako ekimenak sustatzea, sareen egituratzea bermatzea, ekonomia zirkularreko sailaren ahalmena laguntzea eta berrikuntza soziala sustatzea dira garapen ekonomiko orekatu eta iraunkor baten zerbitzuko aritzera eramaten gaituzten ardatzak.

Maitena Curutchet, Kontseilari ordezkaria - Ekonomia Soziala eta Solidarioa -  
Ekonomia zirkularra

EDITORIALA

# ekonomia soziala eta SOLIDARIOA IPAR eUSKAL HERRIAN **ZENBakITAN**




## ESS tokiko dinamiken bihotzean

ESS harreman-zerbitzuetan (gizarte ekintza, osasuna, hezkuntza) eta elkargorako zerbitzuetan (kultura, ingurumena...) engaiatua da bereziki. Dakartzan dinamika kulturala eta kalitatezko zerbitzu eskaintzaren bidez (pertsonendako zerbitzuak, elikamolde iraunkorra...), lurraldeko ekonomiaren katebegi nagusia da.

ESSko enpresak Ipar Euskal Herriko lurralde osoan zabalduak dira. Nahiz eta hiriguneetan gehien biltzen diren, batez ere hiriko lehenetsuzko auzotegietan, non elkartasuna eta gizarte lotura ekartzen duten, baserrialdean ere kokatuak dira, non ekonomiaren berpiztean ari diren, batzuetan bakartuak diren eskualdetan

## Kooperatiben eta elkarten garrantzia

Kooperatiben jardueren zati handia lurraldean bildua da:



Elkarteak dira ESSaren beste adierazle bat lurraldean. Ipar Euskal Herriak eskualdeko elkarte sortzeen dinamika azkarrena dauka:




## ESS, pisu handiko sektorea enpleguari dagokionez



Iturria: INSEE Flores 2019 - URSCOP NA  
Iturria: INSEE eta Elkarten Errepertorio Nazionala

# ekonomia soziala eta SOLIDARIOA, ABANTAILA BAT IPAR EUSKAL HERRIARENTZAT

Ekonomia soziala eta solidarioa lurraldeko garapen ekonomikoa eta sozialaren funtsezko adarra da, denen interesaren zerbitzuko den enpresa sozialeko eredu bat goresten duena.



## ESS, tresna nagusia

enpresen  
transmisioa  
segurtatzeko

antze  
profesionalak  
atxikitzeko

jarduerak eta  
enpleguak  
iraunkortzeko

partzuergo  
bertutetsuak  
abiatzeko

## Geroko ekonomiarentzat eredu inspiragarria, duen berrikuntzarako eta esperimentaziorako gaitasunagatik.

Jarduera sektore guzien zeharkakotasunean, ekonomia soziala eta solidarioa enpresak besterentzeko, antze profesionalak atxikitzeko, jarduerak eta enpleguak iraunkortzeko eta partzuergo bertutetsuak abiatzeko tresna nagusia da lurraldean. Tokiko ekonomia gizartearen eta ingurumenaren arloko trantsizioko erronkei erantzuten dieten eredu berrietara eraldatzeko egiazko ahalmena eskaintzen du.

Abantaila guzi horiei esker, ESS tokiko garapenerako tresna bikaina da Ipar Euskal Herrian, ekonomia horretan jadanik arrunt engaiatua den lurraldea, kooperatibarako tradizio zaharrarekin, ekosistema aberatsa eta anitzarekin eta berrikuntza sozialaren zerbitzuko diren elkarlan dinamikekin.

## ESS oinarritzen den lurraldeko ekosistema, aberatsa eta anitza, egitura bakoitzaren beharrei erantzuten diena garapenerako urrats bakoitzean.

Beste ekosistema berezitu batzuk, hala nola berrikuntza sozialean, ekonomia zirkularrean, hirugarren-lekuak existitzen dira eta proiektu bereziak laguntzen dituzte. Ipar Euskal Herriak ESS arloko egiazko ekosistema bat dauka oinarritzat. Laguntzarako dispositiboek, sorkuntza laguntzeko egiturek, jarduera inkubagailuek, finantzatzaile solidarioek eta abarrek esku hartzen dute urrats bakoitzean ekonomia soziala eta solidarioko proiektu ekarleen aldean.

# ess LAGUNTZAREN LURRALDEKO EKOSISTEMA

## Batera- tzaileak

### Sare nazionalak

ESS France (Frantziako ESS)  
France Tiers-lieux (Frantziako  
hirugarren-lekuak)

...

### Eskualdeko sareak

CRESS NA  
URSCOP

...

### Tokiko sareak

HEMEN

...

## Lagun- tzaileak

### Inkubagailuak eta akuilatzaileak

Le Tube à Essai  
Hego-Akitaniako CAE Interstices

...

### Eskualdeko laguntzailea

ADI Hirugarren-Lekuen  
Kooperatiba (berrikuntza soziala)

...

### Tokiko laguntzailea

DLA  
France Active

...

## Diruzta- tzaileak

### Tokiko elkargoak

Akitania Berriko Eskualdea  
Pirinio Atlantikoetako  
Departamendua

### Banketxeak eta Fundazioak

Lurraldeetako banketxea  
Tokiko hemengo fundazioa

### Finantzabide solidarioa / parte hartzailea

France Active NA  
CLEJ eta CLEFE

Euskal Hirigune  
Elkargoak

**BATERATZEN**  
**LAGUNTZEN**  
**& DIRUZTATZEN DU**

Dispositiboak eta eragileen lineako aurkitegia aurkituko dituzue  
[www.communaute-paysbasque.fr](http://www.communaute-paysbasque.fr) webgunean

Finantzabide solidarioa horren zutabe bat da. Lurraldeko proiektuen zerbitzuko diren enpresen diruztatzeko zenbait tresna sortuak izan dira, herritar ekimen batzuen emaitzak, jarduera hori egituratuz lurraldean.

Haatik, laguntza eta finantzabide dispositibo guzi horiek gaizki ezagutuak dira eta identifikatzeko ez errazak. Hara zergatik laguntza eta finantzabide ibilbide bat egituratu behar den, proiektu ekarle orori lagundua eta sustatua izateko bidea eskaintzeko, edozein izan dadin bere profila, garapen maila edo kokapena.

## Kooperatiba-ondarea tokiko garapen ekonomikoaren zerbitzuko

Kooperatiba eredia Ipar Euskal Herrian arunt sustraitua den tradizio bat da, historia kulturala, politikoa eta ekonomikoaren ondarea. Kooperatibak garatu ziren batez ere enplegua eta tokiko jarduerak sortzeko. 1980ko hamarkadatik goiti, lurraldeko garapen ekonomikoan parte hartu dute nasaiki, enpresa klasikoek bezala. Batzuek, hala nola ALKI, COPELECTRONIC edo OLABERRIA, beren arribideak anizten jakin dute, baita, gaur egun, mundu mailan ezagutuak diren goi mailako antzeak garatzen ere.



Eragileen potretak aurkituko dituzue 16 eta 17. orrialdeetan

Gaur egun, kooperatiba eredia beti emendatzen ari da, izan ex nihilo sorkuntzan (%45 SCOP / SCIC) edo enpresen transmisioan / berriz hartzean (%42), besteak beste zuzendaria erretretara doalarik. Jarduera sektore guziak estaltzen dituztenez, kooperatibak garapen ekonomikoko eredu bertutetsua eta iraunkorra dira.

## Elkarlan eta berrikuntza sozialeko dinamikak

Berrikuntza soziala ekonomia soziala eta solidarioaren DNA da. Denen intereserako aterabide berritzaileak proposatzeko helburua baitute, ESSko eragileek elkarlanean, mutualizazioan eta sinergia bilketan oinarritutako eredu ekonomiko berriak garatzen dituzte etengabe.

Ipar Euskal Herrian, berrikuntza sozialak tokiko ekimen ugari sortu ditu, enpresei zein biztanleei zerbitzu baliagarri berriak ekarriz.



## ESSaren arrakastak Ipar Euskal Herrian


Europako lehen elkartasunezko lehen moneta bilakatu den Eusko (Euskal Moneta elkarte), gaur egun ekonomia zirkularrean zutabea den Aima elkarte, energia berriztatzaileen garapenerako I-Ener, Otsokop eta bere supermerkatu kooperatiboa eta parte hartzailea, edota Gaido Lab berrikuntza sozialaren laborategia, arrakasta honen adibide nagusienak dira.

Hirugarren-lekuak ere elkarlaneko dinamika honen parte hartzaile nagusietarikoak dira. Lan eta giro goxoko leku hibrido horiek, denei irekiak, topaketak eta ideia berritzaileen sortzea ahalbidetzen dituzte. 31 hirugarren-lekuk osatzen badute Ipar Euskal Herriko sarea, beste ekimen batzuk ere sortzen ari dira.



# ess-ARI DAGOKION EKINTZA PLana

Hitzartze zabal baten emaitza den bide orriak ekonomiari eskainitako proiektuak laguntzeko xedea du, ekonomia soziala eta solidarioa, industria eta eskulangintza jardueren garapena eta birkokapenerako aukera izan dadin. ESS ekosistemaren egituratzea lurraldean, eragileen arteko elkarlana, berrikuntza soziala agerian ezartzea trantsizio arloko erronkei erantzuteko, eta ekonomia zirkularraren pizteari sustapena dira ardatz nagusiak.



## 1. XEDEA

Jakintza hobetzea, sentsibilizatzea eta ESS sustatzea.

Berez, ESS jarduera sektore guzietan dagokie. Gaur egun, funtsezkoa da hobeki identifikatzea eta ezagutzea, baita eragileen arteko loturak erraztea ere. Euskal Hirigune Elkargoak ekonomia soziala eta solidarioko egiazko animatzailea izateko xedea du, garapen ekonomiko eta trantsizio iraunkorreko tresna izan dadin.

Abiatu beharreko ekintzak:

- **ESSko tokiko behatoki baten sortzea sustatzea;**
- **ESS enpresei zuzendutako lineako zerbitzu partekatutako sortzea** (jarduera sektoreen arabera banatutako enpresen aurkitegia, laguntza ekonomikoen gidaliburua...);
- **Lurraldeko ESS enpresekin topaketak antolatzea**, CRESS NArekin partaidetzan, haien beharrak identifikatzeko eta haien proiekturako erabil daitezkeen baliabideetara bideratzeko;
- **ESS enpresei eskaera publikorako bidea erraztea:** gizartearen eta ingurumenaren arloko klausulak gehitzea, eko-labelak...
- **“ESSaren hilabetea” ekitaldi nazionalen parte hartzea**, Euskal Hirigune Elkargoko mintegietan animazioak antolatuz.

ESS arloan enpresak eta enpleguak sortzen laguntzeko, Euskal Hirigune Elkargoak ESS “ohiko” mundu ekonomikoan sartzeko xedea du, eta, orokorrago, berrikuntza sozialaren kultura lurralde osoan zabaltzekoa.

Abiatu beharreko ekintzak:

### ESS ENPRESEN SORTZEA LAGUNTZEA


- **Euskal Hirigune Elkargoko finantzabide dispositiboetarako bidea irekitzea** (proiektu deialdiak, honi eskainitako hasierako laguntza dispositiboak);
- **ESS enpresa-proiektuak laguntzea**, tokiko ekosistemari buruzko informazioa ematekin eta tokiko eragileekin harremanetan jartzetik proiektuaren jarraipenera, laguntza sarekin elkarlanean;
- **Lurren eskuraztea erraztea** (lur publikoak esku uzteko aukerak ikertzea, batez ere baserrialdean, edo lokalak tarte batez okupatzeko aukerak);
- ESS enpresak edo proiektu ekarleak **Euskal Elkargoko mintegietan sartzeko laguntzea.**

### BERRIKUNTZA SOZIALA

- **Hautetsiak** berrikuntza sozialeko proiektuen garapen ekonomikoko eta eragin sozialeko ahalmenera **sentsibilizatzea**;
- **Berrikuntza sozialeko proiektu berri-berriak aurkitzea eta laguntzea**;
- **Proiektu deialditik ateratako ekimen berritzaileak sustatzea**;
- **Berrikuntza sozialaren arloko jakintza mintegi teknopolitanoen galtzarrean zabaltzea** (ARKINOA, CREALUZ...).

### SARE-BURUAK ETA LURRALDEKO KOORDINAZIOA SUSTATZEA

- **Existitzen diren partaidetzak sendotzea eta garatzea** ESS enpresei eskainitako laguntza eta finantzabideak azkartzeko;
- **ESS sare-buruen eta partaide tekniko nagusien ekintza sustatzea** partaidetza berriak plantan ezarriz;
- **Laguntza arloko lurraldeko eragileen koordinazioa sustatzea** (partaidetza pribatu / publikoetako batzordeak).



### 3. XEDEA

## Ekonomia zirkularreko saila sortzea eta egituratzea ESSaren esparruan

Ekologia eta energia trantsizioaren erronken aitzinean, ekonomia zirkularreko sailen sorkuntza laguntzea ESSko bide orriaren ardatz nagusietariko bat da. Laguntza dispositiboak, ESSko eragileen eta tokiko industrialarien arteko elkarlanak eta sail honen ondorio bertutetsuak ezartzen ditu argitan, besteak beste.

Abiatu beharreko ekintzak:

- Lurraldean, ekonomia zirkularreko **eragileak maparatzea** (enpresak, elkarteak);
- Sortzen edo / eta garatzen ari diren **proiektu ekarleak laguntzea** (finantزابide eta partaidetza bilaketa, eredu ekonomikoa...);
- **Bil ta Garbirekin, ekonomia zirkularrari eskainitako inkubagailu proiektu bat ko-eraikitzea;**
- **Ekonomia zirkularreko enpresen mintegi bat sortzea;**
- **Hondakin industrialen isurien diagnostiko bat egitea,** “Industria lurraldea” ekimenaren esparruan, ESSko eragileekin elkarlan proiektuen sortzea lagunduko luketen menturazko iturriak identifikatzeko;
- **Ekonomia zirkularrari buruzko ekitaldiak animatzea,** Bil ta Garbirekin partaidetzan.



### HURBILAGOTIK... ESS eta berrerabiltzearen saila

ESSko enpresak berrerabiltzearen eta bizitza bukaeran diren produktuen birziklatzearen alde engaiatuak dira 1960ko hamarkadatik goiti. Gaur egun, ESS Berrerabiltzearen saileko egituren %35ari dagokio nazio mailan, eta 21 000 langile biltzen ditu.

Iturria: Ekonomia soziala eta solidarioko iruzkindutako ATLASa,  
ESSaren behatoki nazionala, - ESS France, 2020



## 4. XEDEA

### Lurraldeko hirugarren lekuen biderkatzea eta sarean ezartzea laguntzea

Hirugarren-lekuak, topaketak eta ideia berritzaileen sortzea laguntzeko tresna bikainak dira. Euskal Hirigune Elkargoak, haien garapenari eta saretzeari, tokiko fabrikazioa eta lurraldeen berpiztea sustatzeko eragile indartsua dela deritzo.


Abiatu beharreko ekintzak:

- **Hirugarren-lekuak gehiago agerian ezartzea** horiei eskainitako atari baten bitartez eta lurraldeko hirugarren-lekuak maparatzuz;
- **Hasierako urratsean diren proiektuak laguntzea** hirugarren-lekuetako proiektu ingeniariaren bidez;
- **Ekoizpenaren arloko hirugarren-lekuen sortzea eta garapena sustatzea** zuzeneko laguntza dispositibo baten bidez;
- **Hirugarren-lekuen arteko lurraldeko elkarlan proiektuak laguntzea**, proiektuen aitzinatzearen eta gaitasunen emendatzearen eragile direlakoan;
- **Hirugarren-lekuen tokiko sare baten sortzea bultzatzea**;
- **Trukaketa ekitaldiak antolatzea eta animatzea**, eragile kidego baten sortzea errazteko;
- **Hirugarren-lekuekin lotutako gaiei buruzko ikerketa bultzatzea** (hirugarren-lekuei buruzko katedrak / ikerketa lanak);
- **Hirugarren-leku bateko proiektua eramatea Bankan.**



### HURBILAGOTIK...



2022an sortutako Euskal Herriko Lantegiak, ANCT erakundeak labelizatutako hurbileko 100 Lantegietako bat dela eta, proiektu kolektiboak sortzen ditu ekonomia zirkularreko arloan. Proiektu ohargarria da duen alderdi kolektiboa eta sektore-anitzeagoatik, Euskal Hirigune Elkargoak eta tokiko zortzi egiturek bultzaturik, garapen ekonomikoa, tokiko ekoizpena, formakuntza eta gizarteratze profesionalaren zerbitzuko.



# ERAGILE BATZUEN POTRETAK

Elkarte eta enpresa kooperatiba batzuen engaiamenduari esker, ekonomia soziala eta solidarioak bere printzipioak eta baloreak hedatzen ditu lurraldean.


Ipar Euskal Herrian eta haratago ESS egiten duten eragile horietariko hirurekin topaketa.



## AIMA

Xahutzearen aurkako borrokaren eredu berritzailea eta bertutetsua


“BERRERABILPEN SOLIDARIOA” sustatuz, AIMA elkarteak alderdi ekonomikoa, soziala edo humanitarioa ematen die suntsituak edo lurperatuak izateko zorian dauden objektuei. “Ekoizpena, Kontsumoa, Suntsipena” triptikoa baztertu nahian, bere eredu ekonomikoak, bertutetsua eta iraunkorra, bigarren eskuko ekoizkin sorta zabala proposatzeko bidea eskaintzen du prezio apalean, partikularrentzat zein profesionalentzat, ESSko funtsezko baloreekin bat eginez: garapen iraunkorra, elkartasuna, etika, ekonomia zirkularra, engaiamendu soziala eta lurraldean sustraitua izatea. AIMA departamendu osoan hedatu da hiru birziklategi sortuz, trukaketa azoka bat eta medikuntza materialaren birziklatzeari eta konboi humanitarioei eskainitako hangar bat. AIMA PROk 1000 tona altzari eta medikuntza material berrerabiltzen ditu (partikularrenak eta profesionalenak). Hara zergatik elkarte Frantziako altzari profesionalen berrerabilpenaren hiru eragile handienetarikoa bat den. 50 boluntariorekin, AIMAK 35 enplegu iraunkor sortu ditu baserrialdean.



## ALKI

### Diseinu altzaritik engaiamendu iraunkorrera


ALKI engaiatutako ereduzko enpresa bat da. 1981ean Ipar Euskal Herrian kalitatezko enplegu iraunkorrak sortzeko xedearekin sortutako altzari lantegi honek haritz hutsa lantzeko aspaldi handiko antzea iraunarazten jakin du, gaurko zurezko altzariak ere proposatuz, diseinu arloan erreferentzia bat bihurtuz mundu mailan. SCOP hori handituz joan da urteak joan ahala. Gaur egun 42 langile-lankide ditu, kooperatiba eredu ekonomikoa sustatzeko gogo beraren inguruan bildurik. Eskulangintza eta industriaren arteko muga ezabatzen duten haritz hutsaren inguruko teknikak, antzea eta esperientzia ugarirekin, Alki garapen iraunkorrean ere engaiatua da. Euskal Hirigune Elkargoak utzitako lurrari esker, Larresoron Pelen Bordan lan eremuan kokaturik, eraikitzen ari den “zero energia” lantegi berriak markaren garapena lagunduko du munduan zehar.




## ZURLAN

### Zuraren lana iraunkortzea kooperatiba ereduan

Transmisio historia bat da. Ehun urte dituen eskulangintza enpresa baten historia, ZURLAN zurgindegia. Bere sortzaileak enpresa SCOP batean bildutako langileen esku uztea erabaki zuen, Zurlan abenturak iraun dezan. Zurgintza, teilatugintza eta zur lanetan berezitua, Zurlanek bere gaitasunak areagotu ditu bio iturriko isolamendu eta zurezko zureriekin eraikitako etxeen jarduerak garatuz, eraikinen emaitza energetikoko eskakizunei erantzunez. SCOP bihurtu denetik, enpresa gero eta handiagoa da. Gaur egun 12 langile eta 2 apendiz ditu Baigorriin.



# euskal HIRIGUNE elKARGOKO PROIEKTU nagusiak



Bide orrian adierazitako eta eraman beharreko helburuetatik eta ekintzetatik haratago, Euskal Hirigune Elkargoak lurraldean ESS garatzeko eta egituratzeko proiektu egituratzaileak jadanik abian jarri ditu. Horra horietako biren aurkezpen xehea.

## Hirugarren-leku bat Alduden

Tokiko bizitza ekonomikoa eta soziala laguntzea Aldudeko ibarra lurraldearen nortasuna berrituz, hau da Olharen helburua. 700m<sup>2</sup>ko azaleran, hirugarren-leku honek Kintoa etxea eta sail honetako lokalak aterpetuko ditu, baita coworking gune bat, enpresa berrien harrera gune bat, eta denei, enpresei zein elkarteei, irekitako bilkura gelak ere.

### ARGIBIDE NAGUSIAK

**2026. urte hastapenean:** eraikina bukatua izan beharko litzatekeen data

**Obren kostua: 1,9 M€**

**Diruztatzzaileak:** Euskal Hirigune Elkargoa, DSIL Estatuko funtsa, Akitania Berriko Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua.

## Ekonomia zirkularrari eskainitako mintegia

Ekonomia zirkularra saileko enpresek lurrak eskuratzeko zailtasunei, ekoizkinak pikoan ezartzeko laguntza bideen eskasiei eta beren jarduera iraunkortzeko beharrari aurre egin behar dietelarik, Euskal Hirigune Elkargoa mintegi bat sortzeko lanean ari da proiektuak hastapen-hastapenetik laguntzeko, baita garapen urrats nagusietan ere.

### ARGIBIDE NAGUSIAK

**2023ko urtarrilean:** egingarritasun ikerketa abiatzea

**Kostua: 3 M€**

**Diruztatzzaileak:** Euskal Hirigune Elkargoa eta beste partaide batzuk







Euskal Hirigune Elkargoak ESSaren alde eta,  
oro har, ekonomiaren alde eramandako ekintza guziak  
aurkituko dituzue ondoko Web orrian:

[www.communaute-paysbasque.fr](http://www.communaute-paysbasque.fr)

Euskal Hirigune Elkargoa  
Garapen Ekonomikoaren Zuzendaritza  
[deveco@communaute-paysbasque.fr](mailto:deveco@communaute-paysbasque.fr)





pays  
Basque  
euskal  
Herria

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION  
—  
HIRIGUNE  
ELKARGOA



5

